

Liburuak berriro erabiltzeko kultura sustatzeko ekimena

Book Box liburutegi mugikorra jarri dute Alkizako liburutegian, herritarrek etxean dituzten liburuak bertan utzi edo hartzeko; eskualde osora zabaldu nahi dute ekimena // **5**

Abaltzisketarrak herrian geratzeko proiektua martxan

Azpiko etxearen ordainketa amaituko du Abaltzisketako udalak aurten, eta ondoren, etxebizitzak egin asmo ditu bertan; 408.152 euroko aurrekontua du 2021erako // **4**

ATARIAren hurrengo
alea apirilaren 7an
argitaratuko dugu

**Lizartza
inguruko
hamar gailur
egiteko
erronka** // **6**



TOLOSA

UDABERRIRAKO ESKAINTZA

«Bertako kultura sustatzen jarraitzeko konpromisoari eutsiz», hamahiru ikuskizun antolatu ditu Tolosako Udalak ekaina bitarte; «tolosar guztiak hartu dira kontuan egitaraua osatzeko orduan», azaldu dute udaletik // **2**

JOSU ARTUTXA



Bazurka
industrialdea, 40
20260 Alegia
943 651 359
661 633 695
iareraikuntzak@gmail.com

**TEILATUAK
FATXADAK
ERABERRITZEAK**

VELUX®

Instalatzailer baimendua



Udaberrian, kultura ere loratuko da Tolosan

Bertako kultura sustatzen jarraitzeko konpromisoa berretsiz, adin tarte eta gustu guztietarako hamahiru ikuskizun antolatu ditu udalak, ekainera bitarte

J. Artutxa Dorronsoro

Urtaro bakoitzaren hasieran egin ohi du Tolosako Udalak, hurrengo hiruhilekorako kultur egitarauaren aurkezpena. Aurtengo udaberrirako ere, ekitaldi sorta zabala prestatu dute. Udalako solstiziora bitartean, hamahiru ikuskizunez gozatzeko aukera izango da Leidor aretoan. «Kultura sustatzen jarraitzen dugu, kalitatezko programazioa osatuz», adierazi du Izarne Iglesias kultur zinegotziak.

Musika, dantza, antzerkia, bertsoak, bakarriketak eta beste hainbat diziplina artistiko uztartzen ditu udaberriko eskaintzak. «Tolosar guztiak hartu dira kontuan egitaraua osatzeko garaian. Arte eszeniko guztiak biltzen ditu, eta adin tarte eta gustu guztietako herritarrentzako dago prestatua, kulturaz modu seguruan gozatu ahal izateko».

Besteak beste, Joseba Apaolaza, Ramon Agirre, Aitziber Garmendia eta Ander Lipus aktoreak, Oreka TX musika taldea, Garikoitz Mendizabal eta Gorka Hermosa musikariak, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak eta Miren Amuriza bertsolaria igoko dira oholtza gainera. Hala ere, tartean ere izango dira eskualdeko artistak: Antton Telleria bakarriketaria, Postal Kolekzionistak musika taldea, Leire Amonarriz dantzaria, German Ormazabal musikaria, Hodeiertz abesbatza eta kultur etxeko antzerki taldea.

Leidorreko leihatilan edo *tickets.kutxabank.es* webgunean eskuratu daitezke saioetarako sarrerak. «Oraindik eskuragarri dago 10 saiotarako bina sarrera deskontuarekin erosteko aukera ematen duen Eszena bonua, 50 euroan», gogoratu du Jokin Ansoarena kultur teknikariak.



Tolosako Udaleko ordezkariak gain, saioetan parte hartuko duten sortzaile eta eragileak izan ziren aurkezpenean. J.A.

UDABERRIKO KULTUR ESKAINTZA

Apirilak 10, larunbata

19:00. Tolofolk jaialdiaren barruan, Oreka TX musika taldearen *Koklea* kontzertua, Leidor aretoan.

Apirilak 16, ostirala

19:00. Antton Telleria tolosarraren *Nekatutak* bakarriketara saioa, Leidor aretoan (sarrerak agortuta).

Apirilak 17, larunbata

16:00. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen *Amaren Intxaurrak!* ikuskizuna, Leidorren (sarrerak agortuta).

Apirilak 23, ostirala

19:00. GnatZinema I. Gipuzkoako Natura eta Ingurumeneko Zinema Erakustaldiaren barruan, *Natura Bizi*a pelikula eskainiko da, Leidor aretoan.

Apirilak 24, larunbata

19:00. *Izadi, el lagarto baila* dantza ikuskizuna, Leire Amonarriz tolosarraren eskutik, Leidor aretoan.

Apirilak 30, ostirala

19:00. *Metamorfosis* saioa, Garikoitz Mendizabal txistulariaren eta German Ormazabal piano-jotzaile tolosarraren eskutik, Leidorren.

Maiatzak 7, ostirala

19:00. Artedrama konpainiaren *Atzerrian Lurra* Garrantzantzezlan, Leidor aretoan.

Maiatzak 14, ostirala

19:00. Postal Kolekzionistak musika talde tolosarraren *Bagoi hutsak* bigarren diskoaren aurkezpena, Leidorren. Apirilaren 15ean kaleratuko du taldeak lan hau.

Maiatzak 21, ostirala

19:00. Miren Amurizaren eta Askoa Etxebarrieta *La pulgaren Gorria* ikuskizuna, Leidor aretoan.

Maiatzak 28, ostirala

19:00. Txalo produkzioak konpainiaren *Konpromisoa* obra, Leidorren.

Ekainak 4, ostirala

19:00. Txalo produkzioak konpainiaren *Losers* antzezlan, Leidorren.

Ekainak 11, ostirala

19:00. *Iparragirre 200 urte. Urre-txutik mundura* musika saioa: Gorka Hermosa, Blanchard Strings, Marino Pardo eta Hodeiertz abesbatza.

Ekainak 18, ostirala

19:00. *La Fierecilla* obra, kultur etxeko antzerki taldearen eskutik.

Inauterien memoria digitalizatzea helburu

Inauteriei buruzko dokumental «historikorako» materiala biltzen hasiko da Tolosako Udala, astelehenetik aurrera, kultur etxean

Josu Artutxa Dorronsoro

Tolosako Udalak inauterien inguruko dokumental historikoa gauzatzeko baliatu nahi du 2021a. «Artxiborako geratutako den ikus-entzunezkoa sortu, eta tolosar guztien eskura jarri nahi dugu», adierazi du Izarne Iglesias kultur zinegotziak. «Urte aproposa izan daiteke prozesu luzeagoa eskatzen duen lan serioago bat egiteko», gaineratu du Xabier Cañas kultur teknikariak.

2011n *Jeiki Jeiki* erakusketa-aren harira, antzeko ekimenak jarri

zuen martxan udalak. Orduan material ugari bildu zela esan du Iglesias. Horiek guztiak ere erabili ahal izango dituzte dokumentalerako. Oraingoan, ordea, inauteriak ikuspuntu ezberdin batetik landu eta jorratzea da asmoa. «Zerbait objektiboa egin nahi dugu, historialariak, soziologoak eta antropologoak elkarriketatuz. Orain arte inauteriei buruz egindako dokumentaletatik aldenduko den lana izango da, irudiek testigantza pertsonalek baino indar handiagoa izango dute», azaldu du Cañasek.

Dokumentala osatzeko lehen urratsa, beraz, material bilketa egitea izango da. Ekimen honetan parte hartu nahi duten herritarrek, astelehenaz geroztik eraman ditzakete kultur etxera etxean dituzten inauterien inguruko bideo eta grabaketak. «Ez da inauteriekin zerikusirik ez duen materialik digitalizatuko, eta gero, irizpide artistikoen arabera erabakiko da zein irudi erabili», aurreratu du Cañasek. Herritarrek udalaren esku utzitako materiala dokumentalerako erabili ahal izango da, aurrez bai-

mena emanda: fitxa bat betez eta lizentzia sinatuz.

BIDEOEK LEHENTASUNA

Goizez (10:00-13:00) eta arratsaldeaz (16:00-20:30) bilduko da materiala, ekainaren 22ra bitarte. Aste Santuko egunetan, goizez bakarrik egingo da bilketa. Edozein formatutan (VHS, Bideo 8, Betacam...) aurkeztutako materiala jaso eta digitalizatuko du udalak, eta digitalizatu ondoren, USB batean itzuliko zaio materiala jabeari. «Dagoeneko digitalizatuta dagoen materiala ere onartuko da. Argazkiak eraman daitezkeen arren, dokumentalerako bideoek izango dute lehentasuna», gaineratu du Cañasek.

Materiala jaso ondoren, dokumentalerako gidoia prestatuko dela esan du teknikariak. «Bideoak oinarri izango dira, produkzio lanekin hasteko. Irudi pertsonalak edo orokorrak izan daitezke, batez ere, testuinguruan kokatzeko balio dezaketenak».

2022rako dokumentala prest izatea da asmoa. «Tolosako festarik herrikoi, maitatu eta jendetsuenaren jatorria, historia eta eboluzioa aztertu eta jaso nahi dugu. Guztiok ditugu etxean urtetan grabatu eta gorde izan ditugun bideoak. Horietako asko, altxor txikiak dira, balio historiko handikoak, inauterien garrantzia azaltzen dutenak», nabarmendu du Iglesiasen.

Ekitaldiak, Euskal Herria Batera ekimenarekin bat eginez

Anoetan eta Tolosan 12:30ean kantuan ariko dira herritarrak apirilaren 4an, Aberri Eguna ospatzeko

Erredakzioa

Euskal Herria Batera ekimenarekin bat egin dute eskualdeko hainbat herrik, eta Tolosan eta Anoetan esaterako kantuan ariko dira herritarrak apirilaren 4an, Aberri Egunean. Dinamikak 12:30erako egin du deia.

Tolosan Euskal Pizkundea plazan bilduko dira eta Anoetan herriko plazan. «2020an nahikoa izan zen herritar talde txiki batek aukera eskaintzea Euskal Herri osoan milaka herritarrek batera keinu bat egiteko, eta hainbat gizarte eragile, alderdi eta sindikatu ere ekimenera batzeko», esan du Euskal Herria Batera Tolosalde talde sustatzaileak.

Horiek horrela, aurten ere «keinu bat» egitera animatu nahi dituzte herritarrak; «oraingo honetan plazetan burutuko dugu ekitaldia, Tolosaren kasuan, Euskal Pizkundea plazan, eta ikus entzunezko bat izango da oinarri».

Keinu horietako bat kantua izango dela esan du beraz, Tolosako taldeak eta hiru kantu abestuko dituztela gaineratu du: Joxean Artzeren hitzak dituen *Txoriak Txori*, J.M. Iparragirreraren *Gernikako Arbola* eta Xabin Gereñoren *Ikusi mendizaleak*. «Seinale bat zabalduko dugu aipaturiko orduan, horrela denok batera kantatu ahal izango dugu, kantari famatuekin batera». Tolosako kasuan, euria egiten badu, Berdura plazan ariko dira.

Ernaik mendi martxa antolatu du apirilaren 3rako

TOLOSALDEA // Ernaik gazteak deitu ditu apirilaren 3an Oiarzundik Bianditzera mendi martxa egitera *Ez gaude inoren zain* lelopean. Irteeran parte hartzeko Ibarako Atari, Villabonako Iratzar, Anoetako Itzuli edo Tolosako Amañu tabernetan eman behar da izena. Autobusa Tolosa eta Villabonatik aterako da.

Datozen bi asteetarako eskaintza zabala jarri dute eskura

Tolosaldeko turismo bulegoak ordutegia zabalduko du apirilaren 1 eta 5 artean, eta orduero bisita gidatuak eskainiko ditu; museo eta aisialdi guneek ere eskaintza indartu dute

Erredakzioa Tolosaldea

Tolosaldeko Garatzeneko Turismo sailak Tolosaldeko Aste Santurako duen eskaintzaren berri eman du: «Euskal Herriaren erdigunetik hurbil izateaz gain, landa eremuaren lasaitasunaz, naturaz, gastronomiaz, ondareaz eta kulturaz gozatzeko lurralde aproposa da. Urtero moduan, gainera, eskaintza hori indartuko da Aste Santuko jai egunei eta Pazko asteari begira».

TURISMO BULEGOA

Eskaintzaren berri emateko Tolosaldeko turismo bulegoak ordutegia zabalduko du apirilaren 1etik 5era: 10:00-14:30 eta 15:30-19:00 artean izango da zabalik. Gainera, orduero bisita gidatuak antolatu ditu Tolosan bertan: Alde Zaharra, Tolosako Azoka eta Andre Maria eliza ezagutzeko aukera izango da, gida baten azalpenekin.

Tolosaldeko museo eta aisialdi guneek ere eskaintza indartuko dute, tailer, bisita gidatu eta arte jardunaldiekin.

Era berean, eta aurten lehen aldiz, Tolofolk musika jaialdia egongo da apirilaren 7tik 11ra, Tolosako hainbat gunetan. Musika herrikoia izango du ardatz, eta Tolosaldeko, Euskal Herriko nahiz Espainiar estatuko musika-taldeen emanaldiak izango dira.



Bisita gidatuak egingo dituzte Santa Maria parrokian. J.A.

ESKAITNTZA

Bisita gidatuak

Tolosako Alde Zaharra. Asteleheneretik larunbatera 10:00etan; osteguna, ostirala eta astelehena 11:00etan; eta ostegunetik astelehenera baita 17:00etan eta 18:00etan ere.

Tolosako Azoka. Larunbatetan 11:00etan.

Tolosako Santa Maria elizako ganga. Apirilak 1, 2, 3 eta 5 12:00etan eta 16:00etan; eta apirilak 4, igandean 11:00etan eta 16:00etan.

Tolosako Santa Maria elizako ondarea. Ostegunetik larunbatera eta astelehenera 13:00etan; eta apirilak 4 igandean 10:00etan.

Museo eta aisialdi guneak

Topic, Tolosa. Txotxongilo tailerrak, apirilaren 6, 7, 8 eta 9an.

Urmara, Alkiza. Slow Art Day apirilaren 10ean (doan) eta Koinobi haize-arrairen sorkuntza tailerra, Ainhoa Goenagaren eskutik, apirilaren 11n (5 euro)

Rafa Gorrotxategi Txokolatearen Museoa, Tolosa. Apirilak 1, 2, 3, 4 eta 5; 11:00etan txokolate tailerra eta 12:30ean bisita gidatua.

Fagus Alkiza. Alkizako baserri paisaia ezagutzeko lantegi ibiltaria apirilaren 3an (5 euro).

Txindokiko Itzala, Larraitx. Datozen bi asteetan zehar egunero zabalik.

Elkarlanerako deia egin du Enirio- Aralarreko lehendakariak

«Tristuraz» hartu du Aralarko baserriar elkarteak, EHNEk eta ENBAk harremanak eteteko hartutako erabakia

Erredakzioa

Aralarko baserriar elkarteak, EHNEk eta ENBAk erabaki dute Enirio-Aralar Mankomunitatearekin harremanak etetea eta horren aurrean tristura azaldu du mankomunitateko lehendakari Adur Ezenarrok. «Elkarlanerako deia egiten dut, elkar ulertzera konde-naturik gaudelako. Era berean, oso kontziente izan behar gara mankomunitatea tokiko administrazio bat dela, bere arauak di-tuela eta kasu honetan ordenantza aurreko legegintzaldian onartu zela eta ordutik indarrean dagoela. Zentzu horretan ez da al-daketarik egon eta legegintzaldi honetan egon den aldaketa baka-rra izan da Foru Aldundiak %100eko finantzazioa aldatu duela», esan du. Aurreko legegintzaldian onartutako ordenantzari buruz esan du «sindikatu eta abeltzainek lanketan parte hartzeko aukera» izan zutela. «Ordenantza horrek eskubide desberdi-nak aitortzen dizkie ustiaiekua mankomunitatea osatzen dugun herrietan dutenei eta ez dutenei, ez die uzten behor eta behiak igotzen, baina bai ardiak. Beraz, ez dira abere guztiak baimendu ez direnak. 134 eskaeretatik 10i ba-karrik eragin die», gaineratu du.

BIDEOA

Adur Ezenarro Enirio-Aralar Mankomunitateko lehendakariaren hitzak *ataria.eus*-en.

Downen Sindromea eta autismoa lantzen dituzten pelikulak

AMASA-VILLABONA // Bi film eskainiko dituzte gaur eta apirilaren 7an, Gurea antzokian, doan, Downen Sindromearen Nazioarteko Egunari eta Autismoaren Nazioarteko Egunari lotuta. Gaur *Un año más* dokumentala ikusi ahalko da eta apirilaren 7an *Yo soy Sam* pelikula. Emanaldiak 19:00etan izango dira.

Pandemia eteteko neurri egokiei buruzko kanpaina

TOLOSALDEA // Gipuzkoako Ostalarien Elkarteak sentsibilizazio kanpaina bat egingo du apirilaren 2an Tolosan eta Villabonan. COVID-19ak eragindako pandemia eteteko neurri egokiak sustatzeko helburua du. Tolosako hainbat tabernatan egongo dira 18:00etatik 19:00etara eta Villabonara joango dira gero.

14

POSITIBO BERRI

Osasun sailak emandako datuen arabera, 8.918 test diagnostiko egin zituzten herenegun, eta horietatik, 501 (%5,6) positiboak izan ziren. Gipuzkoan, 172 positibo izan ziren, tartean, 14 Tolosaldekoak; Tolosan 6, Baliarrai-nen 3, Lizartzan eta Zizurkilen bina eta Abaltzisketan bat atze-man dituzte.

Azken ordainketa egin, eta Azpiko etxea bereganatuko du udalak

Abaltzisketako Udalak 408.152 euroko aurrekontua du; etxebizitzak egin ahal izateko erosi duten Azpiko etxeako lur sailaren 52.500 euroko azken ordainketa egingo dute

Eneritz Maiz Etxarri

Abaltzisketa

Abaltzisketako Udalak 408.152 euroko aurrekontua du. Azken urteetakoaren antzekoa dela esan du Jon Zubizarreta alkateak. «Urtean zehar lortzen ditugun diru laguntzei esker pittin bat igoko da, edo hori da espero duguna behintzat», gaineratu du. Langileen egitura bera eta gastu arruntak ere berdinak izango dituztela aitortu du: «Inbertsioetarako ditugun 110.000 euro inguru ere urterokoa da».

«Inbertsioak egiterako orduan, eta pandemia honekin gero eta gehiago gainera, egin behar ditugun inbertsio guztiak izendatuta jartzeko ohiturarik ez dugu», argitu du Zubizarreta. Baina iaz aldaketa bat bai egin behar izan zuten. Abaltzisketako Udalak, etxebizitzak egiteko helburuarekin herrigunearan dagoen Azpiko etxearen lur saila erosi da. Hiru urtetan banatuta ari da ordainketa egiten, eta iaz zuen azkena: «Iaz egin behar genuen ordainketa ia guztiz geureganatzeko, eta 105.000 eurokoa zen. Egon ziren murrizketak tarteko, dirua falta genuen».

Pandemia egoera zela eta, telefonoz hitz egin behar izan zuten lur sailaren jabeekin, «erdia ordainduko geniola izan zen proposamena, hau da, 52.500 euro. Eta ea beste erdia aurtengorako atzeratzerik ba ote genuen», azaldu du Zubizarreta. «Ez zuten izan inongo zalantzarik, ulertu egin zuten eta baiezkota esan ziguten», eta esker moduan gaineratu nahi izan du: «Iazko urtea beraiek izan zuten detaile horri esker salbatu genuen. Bestela zorpetu egin beharko ginatke, eta ez genuen beste ezer egiteko aukerarik izango».

Honenbestez, 52.500 euroak Azpiko etxeako lur saila ordaintzen bukatzeko erabiliko dituzte, eta Abaltzisketako Udalaren jabetzara pasako da. 330 biztanle bizi dira Abaltzisketan. «Ez dugu 400 edo 500 izan nahi. Ez da hori. Ez da herria hazteagatik haztea. Baizik eta, herriko seme-



Lau urte eta gero, Azpiko etxea eta bere lur saila bereganatuko ditu udalak etxebizitzak egin ahal izateko. E. MAIZ

alabek, bertan gelditu nahi badute bertan geratzeko aukera izatea da. Hori da gure helburu nagusia». Kontziente dira eraikitzeo egoera ez dela erraza.

Horrez gain, urtero-urtero, baserri bideetan asko erreparatzen dute, eta diru laguntzak eskatzen dituzte: «Aurten ere bi eskatu ditugu, eta pentsatzen dut diru laguntzak izango ditugula, baina hasiera batean horretarako dirua jarri dugu», adierazi du.

«Bizilagunak eta negozioak daude Larraitzen; guztiekin kontatu behar dugu, eta oreka bilatu»

JON ZUBIZARRETA
ABALTZISKETAKO ALKATEA

Errepideez gain, herriko langilearen autoak dagoeneko 23 urte beteak dituela ekarri du gogora, eta hori ere aldatu nahi dutela esan du ekaina alderako. «Azterketa teknikoak egokitzen zaion garairako aldatu nahiko genuke». Hortik aurrera, urtea luzea dela oraindik dio: «zerbait ikasi badugu da epe luzera begira ezin dugula bizi momentu honetan, eta beharrik bada hor izango dugu diru poltsa bat. Larraitzen

azterketaren bat egin nahian bagabiltza, eta agian horretara bideratuko dugu».

Azken urteetan «gurea bezalako udal txiki batentzat bi proiektu potolo» izan dituztela azpimarratu du. Alde batetik erosi duten lur saila legoke, eta bestetik Ñañarri sagardotegia: «Diru kopuru handia eskatu dute, eta urteetan jasotzen aritu gara horiek aurrera atera ahal izateko».

Eta aurrera begira ere badituztela beste pare bat proiektu aurrerratu du alkateak: «guretzat handi samarrak diren proiektuak dira, eta agian aurten hasiko gara horietarako zatiren bat jasotzen».

LARRAITZ

Ez da pandemiak sortu duen gaia, aldez aurretik ere udalean bazuten kezka, baina areagotu egin dira Larraitzen bisitari kopuruarekin sortzen diren arazoak. Iragan igandeko eguna jarri du adibidetzat: «Bai Zaldibia aldera, eta baita herri aldera ere, bide bazter guztiak beteta zeuden». Proposamen ezberdinak esku artean dituztela aurrerratu du, baina, zalantzak ere badituzte: «ez dakit arazoari konponbidea ematen asmatuko dugun».

Lehenik eta behin, ordea, herriarrei batzar batean azaldu nahi diete proposamena, eta herriarrei aurkezterako, ondo landu nahi dute Larraitzerako garatuko duten proposamena. «Alde onak eta txarrak aztertu nahi ditugu, bizilagunak eta negozioak daude tarteko, eta guztiekin kontatu behar dugu. Oreka bilatu. Aurtengo urtea lanketa egiteko hartuko dugu».

KALE IZENDEGIA

Kaleen antolaketa berria egin du udalak. Kaleen izenak, zenbakiak eta auzoen antolamendua berriro dute, eta hori ere herritarren aurrean aurkeztu nahi dute, osoko bilkuran onartu aurretik. «Jendeak jakin egin behar du aldez aurretik, eta jendearen ekarpenak jaso nahi ditugu». Horrekin lotuta, herriko gune ezberdinetan kartel handi batzuk jarriko lituzkete kale, etxe eta auzoak non dauden jakiteko.

FESTAK ETA KULTURA

Ezin dela oso altu hitz egin dio alkateak, egun batetik besterako gauzak aldatu egiten direlako; «iaz egun pare bat, diskretuago bada ere, ospatu genituen, eta nik uste dut aurten ere ez dela

ZENBAKITAN

SARRERAK	EUROAK
Zuzeneko zergak	53.550
Zeharkako zergak	2.000
Tasak eta beste sarrerak	27.1300
Transferentzia arruntak	302.562
Ondare sarrerak	21.110
Kapital transferentziak	1.800

GASTUAK	EUROAK
Pertsonal gastuak	140.000
Gastu arrunt eta zerbitzuetan	88.533,63
Finantza gastuak	600
Transferentzia arruntak	49.900
Inbertsio errealak	109.618,37
Kapital transferentzia	5.500
Finantza pasiboak	14.000

GUZTIRA	408.152,00
----------------	-------------------

arazorik izango neurriak hartuz zerbait antolatzeke».

Kultur ekitaldi mordoak bat ere badituztela pilatuta esan du. «Udazkenean ezin izan genituen egin, eta atzeratzea erabaki zen». Abaltzisketarrek parte hartzeko ohitura handia dutela aitortu du, eta jende erdiarentzat gauzak ez dituztela antolatu nahi dio: «Berriki herri batzarra egin dugu, baina, azkenean bi batzar egin behar izan genituen; izan ere, lokal txikiak ditugu herrian, eta edukiera neurriengatik hori ari zaigu gertatzen».

Bestalde, udala ekonomiko osasuntsu dagoela esan du Zubizarreta: «Iaz sagardotegiko lanak zirela eta inbertsio potoloa zen guretzat, sukaldeko tresneria guztia berria jartzea erabaki genuen arazorik ez izateko, eta hor zorpetu egin behar izan genuen, baina oso txikia da zorra».

Uztailean irekita, herritarrak «gustura» daudela esan du, eta baita udala ere. Era berean, Larraitzek beste taberna baten beharra zuela dio, «etortzen den jende guztia hartu ahal izateko».

Bukatzeko, herritarrak zoriondu nahi izan ditu, beraien portara onagatik: «Herritik atera ezinik egon garen denbora guztian, 300 biztanle bakarrik izan arren, herriko jendea asko inplikatu da lau establezimenduekin».

Liburutegi mugikorra ekarri dute Alkizara

Book Box delako altzariarekin liburuak partekatzeko kultura sustatu nahi dute; alkizarrek hilabeteotan liburuak utzi eta hartu ahal izango dituzte bertatik

Jon Miranda Alkiza

Duela bost urte inguru irakurketa sustatzeko asmoz sortu zuten Jorge Pineda eta Markel Elizalde Book Box ekimena. Liburuak partekatzearen ideia, eta bide batez, ahaztuta edo erabili gabe dauden aleen berrerabilera bultzatzea da helburua. Altzarigintza kulturaren zerbitzura jarri eta apategiz osatutako liburutegi mugikorra prestatzen dutela esan du Elizalde: «Diseinatuta dagoen moduagatik espaziora zabaltzen da eta elkargune bat bezala irudikatzen dugu, non liburuaren bueltan herriko jendea biltzen den». Liburutegi horietako bat Alkizako herrian egongo da datozen hilabeteetan.

«Zenbat liburu ditugu etxean hautsa hartzen? Izango al dute liburu horiek bigarren irakurketa-rik? Denborarekin ez al ditugu zaborretara botako?». Galdera horiek luzatu zituzten Book Box liburutegi mugikorren sortzaileek proiektua pentsatzen hasi zirenean. «Ez da munduko ideia originalena izango, baina urteotan ikusi dugu jendeak baduela liburuak askatzeko borondatea. Elkarrekin liburuak partekatzeko ideia oinarrian izango zuen altzaria diseinatzera jo genuen. Izan duen arrakasta ikusita, esan dezakegu zuzen genbiltzala, jendeak baduela liburuak berrerabiltzeko gogo», esan du Elizalde.

Tabakaleran sortutako Ireki-labs laborategi herritarretik altzariak diseinatzeko egindako deialdi bati erantzun zioten Pinedak eta Elizalde 2016an. «Oso garai polita» izan zela aitortu dute Book Box proiektuaren egileek: «30 sortzaile inguru bildu ginen bertara eta era guztietako proiektuak sortu genituen. Hiri altzariak garatu ziren edo negutegi ekologiko eta teknologikoak ere. Garai horretan sortu-

tako proiektuetako askok aurrea egin dute, Book Box egitasmoak bezala. Oso eskertuta gaude».

LIBURUAK BERRERABILTZeko

Elizalde Publizitate eta Harreman Publikoetako ikaslea da eta herrigintzako hainbat proiektutarako ikus-entzunezko edukiak sortu izan ditu. Pinedak, aldiz, hirian esku-hartzeak egitera bideratu du bere ibilbidea, eta altzarien diseinua, ahaztutako espazioen berrerabilera eta arkitectura jasangarria landu izan ditu. Elizalde esan du, esperimentzia pertsonaletik abiatuta sortu zitzaizela ideia: «Liburu mordo bat eduki eta haiekin zer egin jakin ez. Denoi gertatu izan zaigu. Nire aita arotza da eta etxe askotan egin du topo errealtate horrekin. Gordetzeko joera horri alternatiba bat topatu nahi genion, eta bururatu zitzaigun liburutegi mugikorrak hauek soluzio egokia izan zitezkeela».

«Proiektu hau martxan jarri dugu irakurketa bultzateko, inongo bereizketarik gabe»

MARKEL ELIZALDE
BOOK BOX PROIEKTUA

Beraz, liburuak berrerabiltzeko kultura sustatzea da helburu nagusia: proiektuarekin bat egin duten herritarrek, elkarteek, liburutegiek, dendek eta abarrek uzten dituzten liburuak Book Boxen jasotzen dira eta edozein pertsonari ematen zaio horiek irakurtzeko aukera. Tabakalera ondoko Kutxa Kultur plazan dago prototipo gisa sortu zuten lehenengo liburutegi mugikorra eta funtzionamenduan jarraitzen du. Altzako eskola batean edota Intxaurrendoko kultur etxean ere topatu daitezke Book Box-ak. «Intxaurrendokoa bereziki egokia iruditzen zaigu, oso

ekosistema berezia sortzen da han eta askotariko jendea gurutzatzen da. Kultur etxea, liburutegia, kiroldegia eta auzotarren elkarteak daude kokatuta eraikin berean eta han kanpoaldean edukitzen dute liburutegi mugikorra».

Alkizako plaza ere toki aproposa da Book Box-a bertan edukitzeko Elizalderen ustetan. «Liburutegia, eskola, frontoia eta ostatua bertatik bertara daude eta jende askoren bilgunea den espazioa da plaza». Sormenaren Kabia bekaren aurkezpen ekitaldian, maiatzaren erdialdean egingo dute Book Box-aren aurkezpena Alkizan. Bien bitartean, liburutegi mugikorraren apalategiak liburuz betetzen joango dira pixkana.

«Guk herrietara ez ditugu apalategiak hutsik eramaten, martxa pixka bat hartu arte liburutegi hori osatzeko materiala ere eramaten dugu. Baina ideia da Book Box-ak bere dinamika propioa hartzea, herritarrek elikatu dezatela liburutegi mugikorra eta elikatu daitezela bertatik», esan du Elizalde. Ekimenaren bultzatzaileek urteotan toki ezberdinetan jarri diren liburutegi mugikorretan trukatu diren materialen kontaketa egin dute: 10.000 liburu, 5.000 aldizkari, 8.934 haur liburu eta 10 komiki. «Benetako altxorak topa daitezke bertan eta horretara gonbidatzen dugu jendea. Arakatu dezala apalategietan, duela urte asko argitaratutako liburuen edizio bereziak ere aurkituko dituzte, seguru gaude».

Instituzio publiko edo enpresa pribatuek euren egoitzetan Book Box bat nahi izanez gero, hura erosteko aukera dute. «Bezeroaren beharretara egokitu dezakegu altzaria, horretarako gurekin harremanetan jartzea besterik ez dute. Irabazi asmorik gabeko ekimena da, gure borondatea li-



Beste hainbat herrietako irudiak, non Book Box-a martxan dagoen. ATARIA

buruak partekatzeko kultura sustatzea da». Alkizan egin duten bezala, maileguan ere eskatu daiteke Book Box bat herrian jartzeko.

«Proiektu hau martxan jarri dugu irakurketa bultzatzeko, inongo bereizketarik gabe, aleak edonori eskaintzeko. Indartu nahi ditugu herritarren arteko sareak eta pertsonen ongizatea bultzatu nahi dugu. Horretarako zer egokiagoa kultura baino», esan du Elizalde. Pandemia garai hauetan horrelako balioak indartu beharraz hitz egin du egi-

tasmoaren bultzatzaileak. «Hilabete batzuetan geldirik egon ondoren, badirudi ari garela egoera berrira ohitzen eta segurtasun neurri guztiak hartuta, partekatzearen kultura hau zabaltzen segi nahi genuke».

Alkizan bezala, Tolosaldeko gainerako herrietan ere liburutegi mugikorrak eramateko gogoazaldu dute Book Box proiektuaren sortzaileek. Horretarako, interesa dutenek, www.webook-box.com helbidean topatuko dute egitasmoaren inguruko informazio guztia.



Irudian ageri diren hamar mendietara igotzeko dute erronka onartu eta parte hartu nahi dutenek. ATARIA

Lizartza inguruko mendiak ezagutzeko erronka, martxan

Herri inguruko hamar menditara igotzeko egitasmoa abiatu du Otsabio kirol elkarteak Lizartzan; irailera bitarteko epea egongo da mendi guztietara igotzeko

Irati Saizar Artola Lizartza

Lizartza inguruko mendi eta leku esanguratsuak ezagutzeko egitasmo bat jarri du martxan Otsabio kirol elkarteak: hamar mendi igotzeko erronka luzatu die herritarrei. Familian zein bakarka, Lizartzako plazatik abiatuta egiteko hamar ibilbide proposatu dituzte eta hamarrak egiten dituenak saria izango duela aurreratu dute.

Axurdario, Urkita, Ulizar, Orunbe, Goltzurko zelai, Larte, Otsabio, Laparmendi, Pagoluze eta Imazen pagoa dira osatu beharreko ibilbideak. Iratitz Olae-txea Otsabio kirol elkarteak kideak azaldu duenez, parte hartzaile

le bakoitzari ibilbideak markatuta dituen mapa bat emango zaio. «Mendietako batera iristean argazki bat atera beharko dute, eta gero, argazki hori udaletxean erakusten dutenean zigilu bat lortuko dute, mendi horretan izan direla ziurtatuko duena». Gauza bera egin beharko dute gainerako mendiekin, hamar mendietako zigiluak lortu arte.

Antolatzaileek irailaren bata bitartean egiteko epea jarri dute: «Aste Santurako martxan jarri nahi genuen, eta hamar ibilbide direnez, tarte zabala utzi nahi izan dugu, denei denbora eman ahal izateko». Parte hartzaileek ibilbideen mapa goizetan udaletxean edo arratsaldeetan liburu-

tegian eskuratu ahaliko dute. Mapaz gain, Wikiloc aplikazioan aurki daitezke ibilbide guztiak, otsabio.lizartza@gmail.com helbidean.

MENDIZALETASUNA

Olaetxeak azaldu duenez, egoera honek «inprobisatu eta sormena erabiltzera» bultzatu ditu kideak, eta kirol elkarte bat diren neurrian, kirolari lotutako jarduerak dituzte ardatz, eta kasu honetan, «natura ezagutzeko modua ematea eta mendizale-tasuna bultzatzea» dira helburuetako batzuk.

Mendizale-tasunari lotuta, «gauri bateko ohiturak zaindu nahian», mendi tontorretan

dauden postontzietan parte hartzaile bakoitzak txarteltxo bana utziko du, izen-abizenak eta helbidea izango dituen. «Txartela uzteko postontzia irekitzean, aurreko kideren batek utzitako txartela badago, udaletxera ekartzeko deia egiten diegu, horrek ere erakutsiko baitu nor izan den mendi horretan». Postontziak mendi guztietan ez zeudenez, Otsabio arduratu da denetan jartzeaz. «Teknologia berriak erabiltzea ondo dago, baina gure ohitura zaharren berri izatea ere garrantzitsua ikusten dugu; horrela, mendi tontorretan postontziak zergatik dauden jakitera bultzatuko dugu jendea», esan du Olaetxeak.

Aurten ere XIV Orduak ibilaldia ez egitea erabaki dute

Baldintza egokiak bermatu ezinda, ibilaldia bertan behera uztea erabaki dute Aralarko Adiskideak elkarteak kideek

Erredakzioa

Aralarko Adiskideak elkarteak arduratzen da XIV Orduak mendi martxa antolatzeaz. Lau urtean behin egiten den ibilaldia da. Iaz zen egitekoa berez eta urte beteaz atzeratzea erabaki zuten. «Gaur gaurkoz baldintzak ez dira egokiak horrelako martxa bat egiteko. Hori dela eta, aurten ere zentzuzkoena eta zuhurrena ibilaldia bertan behera uztea da», zehaztu dute antolatzaileek.

Hainbat arrazoi izan dira erabaki hori hartzeko. «Ibiltariak prestatu egin behar dute horrelako ibilaldi luze bat egiteko, eta gaur egun, batetik bestera mugitzeko ditugun mugekin eta arazoekin, ezin da behar bezalako prestakuntzarik egin», esan dute elkartetik, eta gaineratu: «Gainera, ez dakigu Nafarroara pasatzeko aukerarik izango dugun. Ibilaldia antolatzeko hila-beiteak behar dira, eta egoerak zer bilakaera izango duen eta Aste Santuak zer ekarriko duen jakin gabe, ezin da inolako aurreikuspenik egin alde horretatik».

Hori guztia kontuan hartuta, «aurten ere, tamalez», ez dela XIV Orduak ibilaldirik izango azaldu dute. «Mendizale askok adinako pena dugu antolatzaileok ere, badakigu eta zer-nolako ilusioa pizten duen ibilaldi honek Tolosaldean eta, oro har, mendizaleen artean».

Hilberriak eta urteurrenak



MIKELA MALKORRA ARRASTOA

(Jose Ramon Esnaolaren alarguna)
Martxoaren 30ean hil zen 93 urte zituela,

- Goian Bego -

Seme-alabak: Mertxe eta Juan Mari Amenabarro, Carmen, Pello; bilobak: Alaia eta Haritz, Iñigo eta Maddalen, Maddalen eta Julen, Pape Sow; anai-arrebak: Maria eta Juan Maizotz(†), Arantxa eta Leandro Ayestaran (†), ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak. Haren arimaren alde, ASTEAZKENEAN arratsaldeko ZAZPIETAN, Tolosako SAN FRANTZISKO parroki elizan egingo da hileta.

TOLOSAN, 2021eko martxoaren 31n
OHARRA: Gorputz beila Tolosako ORIA TANATORIOAN egongo da, ASTEAZKENA goizeko 11:30ak arte.

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110€ • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 € bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Jon Irisarrik Itzulian parte hartuko du

Datorren astelehenean hasiko da txirrindulari proba, eta laugarren etapan eskualdetik igaroko da tropela

Imanol Garcia Landa
Leaburu-Txarama

Caja Rural-RGA taldeko Jon Irisarri txirrindulari leaburuarak Itzulia proban parte hartuko du. Astelehenean hasiko da World Tour mailako proba, eta laugarren etapa, apirilaren 8koa, eskualdetik igaroko da. Gogoz dago Irisarri proban parte hartzeko: «Gure lasterketa da, etxekoa, eta beti izaten da ilusioa eta gogoia parte hartzeko. Are gehiago, aurtengo urtea ikusita, ez baititugu asko eta dauzkagunak ondo aprobetxatu behar ditugu».

Espainiako Vueltarekin batera, Itzulia da taldearentzat proba garrantzitsua. «Beti nahi izaten dugu ondo aritu, baina badakigu beste lasterketan baino maila handiagoa dagoela, World Tour mailakoa delako, eta zaila da aurrean egotea. Gure taldeak beti eskatzen digu aurpegia ematea, ikustea taldea lasterketan dagoela, eta ihesaldietan sartzeari», esan du Irisarri. Bere aukerak ere ihesaldietan sartzetik iritsiko direla esan du.

Hain justu, Irisarri gustatuko litzaioke eskualdetik pasatzen den etapan ihes eginda joatea. Gasteizen hasi eta Hondarribian



Jon Irisarri txirrindularia, aurtengo denboraldian. CAJA RURAL-RGA

bukatuko da, eta tropela eskualdera Ikaztegiatik sartuko da, Alegia pasa, Altzora igo, Txaramatik barrena Tolosari iritsi, ondoren Anoetara joan eta Alkiza igotzeko. Azkenik, Zizurkil eta Adunatik pasa ondoren, eskualdetik aterako dira txirrindulariak. «Niretzako oso berezia da etxe ondorik pasatzea», esan du Irisarri. «Orain dela lau urte pasa ginen hemendik eta oso berezia izan zen. Nire familiakoak ikustea errepide ondoan pozgarria da. Saiatuko naiz, noski, egun horretan ihesaldia harpatzen. Donostiako Klasikoan, orain bi urte, ihesaldian sartzea lortu nuen eta hemendik pasa ginen, eta izugarria izan zen. Ho-

rrelako etapak aprobetxatuko ditugu aurpegia eman, gu aurrean ikusteko, eta konfiantza pixka bat hartzeko».

Denboraldiari dagokionez, oraingoz lasterketa asko atzeratu egin dira. «Ematen zuen normal hasiko ginela, baina gero probak atzeratzen hasi ziren, eta oraingoz nahiko lasaia izan dugu», esan du Irisarri. «Ematen du pixkana normalitatea bueltatzen ari dela, lasterketak hastear daudela dirudi, eta atzeratutakoak orain egingo dira. Beraz, hemendik aurrera egutegi ona izango dugu». Orain arte lau klasikotan parte hartu du leaburuarak, bat Espainian eta beste hiruak Frantzian.

Azken jardunaldi erabakigarria

Jakak aukera asko ditu txapelketan aurrera jarraitzeko, eta Peña II.aren eta Altuna III.aren artean dago bigarren postua

Erredakzioa

Binakako Pilota Txapelketaren ligaxka iritsi da une erabakigarria. Asteburu honetan jokatu da hamalagarren jardunaldia, eta oraindik hainbat kontu dauka argitzeke. Eskualdeko pilotari dagokionez, garbi dagoen bakarra da Iñaki Artolak ez duela txapelketan jarraituko. Asteburu honetan Jaka eta Martija bikoaren aurka galduta, Artola eta Aranguren azken postuan geratu dira, hiru garaipenekin, eta datorrenean irabazita ere ez dute aukerarik.

Jaka eta Martijak, berriz, azken txanpa oso on baten ondorioz, aukera asko dituzte lehenengo sei sailkatuen artean sartzeko. Une honetan seigarren postuan daude, bost garaipenekin. Zazpigarren postuan daude, Urrutikoetxea eta Imaz, bost garaipenekin ere. Eta bosgarren postuan daude Ezkurdia eta Ladis Galartza, sei garaipenekin. Hiru bikote hauetako bat geratuko da txapelketatik kanpo. Gainera, Ezkurdia-Galartza eta Urrutikoetxea-Imaz bikoteek elkarren aurka jokatu dute azken jardunaldian.

Jaka-Martijak Peña II-Albisu bikoaren aurka jokatu du larunbatean. Lizartzarrak eta bere bikoteak irabaziz gero, zuzenean txapelketan jarraituko dute. Galduz gero, hurrengo egunean Urrutikoetxea-Imaz eta Ezkurdia-Galartzak jokatu dute partidari adi egon beharko dira: Urrutikoetxea-Imazek galtzen badute, Jaka-Martija pasako dira, eta irabazten badute, kanpoan geratuko dira.

Ez dute, baina, erraza izango lizartzarrak eta bere bikoteak Peña II-Albisu bikoari irabaztea. Sasoi oso onean daude, konfiantzaz, eta hauek ere azken txanpa oso on bat egin ondoren, bigarren postuari heltzeko eta finalerdietara zuzenean pasatzeko aukera dute. Helburu horretarako beste aukerarik Altuna III.a eta Mariezkurrena dira. Hain

SAILKAPENAK

LEHEN MAILA

1. Elezkano II - Zabaleta	10-3
2. Peña II - Albisu	9-4
3. Altuna III - Mariezkurrena II	8-5
4. Olaizola II - Rezusta	6-7
5. Ezkurdia - Ladis Galarza	6-7
6. Jaka - Martija	5-8
7. Urrutikoetxea - Imaz	5-8
8. Artola - Aranguren	3-10

PROMOZIO MAILA

1. Salaberria - O. Etxebarria	12-1
2. Zabala - Erostarbe	9-4
3. Elordi - Garmendia	8-5
4. Zubizarreta III - Uriondo	7-6
5. Alberdi - Salaverri II	6-7
6. Larrazabal - Eskiroz	6-7
7. Egiguren V - Ruiz	2-11
8. Arteaga II - Elizegi	2-11

justu, asteburu honetan elkarren aurka jokatu dute, eta tolosarrak eta Albisuk irabazi dute, 21-22, eta orain beraien esku dago bigarren postuari eustea. Datorren jardunaldian, Peña II-Albisuk irabazten badute, bigarren izango dira. Galduz gero, Altuna III.ak eta Mariezkurrenak astelehenean Amezketan Artola eta Aranguren aurka duten partida irabazi beharra dute 11 tanto baino gehiagoko aldearekin, bigarren postua lortzeko.

Promozio mailan, Iker Elizegik Arteaga II.aren batera bigarren garaipena lortu dute asteburuan, baina azken postuan jarraitzen dute sailkapenean.

Aitzakiarik gabe aurrera

Hiru aste jarraian irabazi eta gero, aste honetan Logroñon, joan zeuden hiru puntuak etxera ekartzeko ilusioz eta gogoz ekin genuen astea. Jada zenbait aste bide eta lan ona presente zirela.

Aste honetan, ligaren bigarren faseari ekin genion eta zer hobe 08:30ean geratu baino. 08:30ean edo 07:30ean, badakizu, ordutegi aldaketaren istorioak. Logroñes taldea izan genuen aurkari, eta nahiz eta lehenengo aldia izan eta ezjakintasun batean aurkitu beraien jokoaren inguruan, aste osoan zehar landuta-



Aulkitik
Eneritz Egilegor
Tolosa CF, 1. Maila Nazionala

koa eta gogo horiek erakusteko grinarekin abiatu ginen.

Partida ez zen guk nahi izan genuen bezain ondo ateratu, ez zen ikusgarria izan emaitzan, 1-1ekoarekin bukatu baikenuen.

Hasierako minutuetan argi ikusi zen ez ginela batere gustura ibili, ez genuela lortu gure jokoa egitea eta minutuak aurrera ez ginen gai izan horri buelta emateko. Beraz, kontuan izanik partidaren norabidea eta etxetik kanpo jokatzeko gurea, lortutako puntua oso garrantzitsua da guretzat borrokan jarraitzeko.

Bestalde, azpimarratzekoa taldeak duen gogoia, ilusioa eta konpromisoa hazten jarraitzeko eta elkarrekin aurrerapausoak emateko. Nahiz eta lesionatutakoak ere egon ziren partidaren batek sorbalda ateratu eta guzti egin baitzuen, ez dugu aitzakia gisa hartzen eta aurrera egiten dugu partida oro.

Animo neskak! Hurrengo hiru puntuen bila!





ASTEAZKENA, 2021EKO MARTXOAK 31
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoeta: 687 410 022.
anoeta@ataria.eus
Ibarra: 687 410 118. ibarra@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baiarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gazteku, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Ibarrako Piperraren bidean zortzi likidanbar zuhaitz landatu dituzte Uzturpe ikastolako LH 4. mailako ikasleek

Haurrak landaketan



Pasa den astean zuhaitz landaketan parte hartu zuten Uzturpeko ikasleak. ATARIA

Erredakzioa Ibarra

Zuhaitzak landatzen aritu ziren Uzturpe ikastolako LH 4 mailako ikasleak pasa den astean. Ibarrako Piperraren bidean, Emeterio Arreseko atzealdeko herri bidean ibili ziren, eta, guztira, zortzi likidanbar zuhaitz landatu zituzten.

Ibarrako Piperraren bidea udaberrirako ari da prestatzen Ibarrako Udala, «piperra herrita-

rraren artean zein kanpotik datozen artean ezagutzera emateko helburuz». Bidean zehar aisialdirako gune ezberdinak topa daitezke, horien artean, zuhaitzak landatu dituzten gunea: kanposantuko bidea Emeterio Arrese kalearen atzealdetik. Bide horretan, likidanbar zuhaitz mota landatu dute. «Landare horien hostoek hainbat tonalitate hartzen dituzte: gorritik berdera pasatzen dira, eta tartean, horiak, laranjak, bioletak eta denen

nahasketak hartzen ditu», azaldu dute.

Igor Zapirain Ibarrako alkateak esan duenez, ikasleek eginiko jarduera «oso interesgarria» izan da: «Haurrekin horrelako ekimenak egitea oso aberasgarria eta interesgarria da. Oso onuragarria da ikasleak ikasgelatik atera eta naturarekin harreman zuzena edukitzea; horrela, ingurugiroa ezagutzeaz gain, hura zaintzearen garrantziaz ere jabetzen dira».

AGENDA

Deialdiak

Amezketak. Ezohiko bilkura, udaletxeko batzar aretoan, 13:00etan.
Anoeta. Aberri eguna: ikurrinen banaketa, udaletxean, 10:00etatik 13:00etara. *Sugarren mende, sorgin ehiza Euskal Herrian* hitzaldia, eragile leen lokalean 18:00etan.
Amasa-Villabona. Osasunaren Nazioarteko Egunaren harira, *Un año mas pelikula*, Gurean, 19:00etan.
Tolosa. Aste Santuan, apirilaren 1 eta 5 artean, turismo bulegoak orduero bisita gidatuak eskainiko ditu. Bertan parte hartzeko, izen ematea turismo bulegoan.

Erakusketak

Tolosa. Miren Gonzalez Goikoetxearen *SOS Sahara* 3 tabernan.
Ibarra. Mendebaldeko Sahara emakumeen begirada kale erakusketa.
Tolosa. Itzalpeko emakume euskaldunak Aranburu jauregian.
Tolosa. 1970-2020 Burgosko Prozesua erakusketa, Aranburu jauregian.
Tolosa. Gizonak, emakumeak eta txotxongiloak, Topic-en.

ATARIA IRRATIA

Egun osoan. Errepikapenak eta euskal musika. Apirilaren 6an itzuliko da Ataria Irratia-ren ohiko programazioa.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Edurne Mujika. Euskal Herria kalea, 3. 943 67 09 15.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz. Larramendi kalea, 6. 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Antzeko giroa. Berriro ere, goizean eguraldi eguzkitsua izango dugu eta apenak ikusiko dugun hodeirik zeruaren. Arratsaldean erdi eta goi-mailako hodeiak ugarituko dira, baina ez dute ondorioz ekarriko. Haizeak hegoaldeko harro jotzen jarraituko du eta tenperatura maximoak 25-27 artean kokatuko dira.

Bihar. Giro lasaiarekin jarraituko dugu. Goizean zerua argiago agertuko zaigu, nahiz eta, aurreko egunekin alderatuz, erdi eta goi-mailako hodei gehiago ikusi. Arratsaldean hodei geruza trinkotzen joango da, baina ez da euririk espero. Haizeak hegoaldeko tarteka zakar jotzen jarraituko du eta tenperaturak behera egingo du, 22-24 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK



Urte askoan!

Kaisaaaaa!
Opor hiria, bai esan?

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

Prezioa

15,50€
31€
45€
51€

Atarikideek

12€
23€
33€
38€

943 65 56 95 · ataria@ataria.eus · San Esteban 20, Tolosa

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez